

# JOXE EIZAGUIRRE - MENDI MARGOLARI

FOR MATXIN LABAYEN

Txomin Onaindia Jaun Apaiz Euskaldun jatorrari.

Uzturre mendi babese'n jaio— bere bizi egoki guzti'n mendiare'n laguntasun zintzoare'n ondoan bizi— (laguntasun zintzo eta alai— margotsua mendiarena) Ayako arkaitz pozki zorrotz itzalea'n il— itzaldu— artistak ez dira beñere iltzen— auxen izan da Joxe Eizaguirre— margolari-obeto oraindik— dibujante bikaina-re'n elburu zoriontsua. —Bai— zoriontsua— ume aundi bat bezela bizi— ume aundi bat bezela il— beñere artiare'n edertasun ta grazi irrikoa galdu gabe— ez al da munduko zorion aundiena?

Mendigoizale— ospetsua ez izan arren— ala ere ibilkari gordiña zan— bere arkatz (lápiz) ta margozkiak (pinceles) beti mendira ardi jaio berriak bezela— jotzan zuten. Ez da arritzekoa egizko artia— eder— bizi— betikoa— orain eta beti Mendia'n dagolako. Gure Jainkoak lenbizi Mendia egin zun— ta mendiaki'n bai azkar artia ta euskera sortu!

Artia ta Euskera menditarrak dira noski! Olaxen ba— Mendia zan Gure Joxe'n gai paregabe— lenbizikoa. Donibane Lohitzun edo Sarako mendi— inguru bigun— orlegi— baserri pollit txuri— alderdi alai-argi paketsuak izan arren— Joxe Eizaguirre'k beti-mendia erakusten digu— batzuetan-lauki (cuadro) margotsu— biziak dira— oso biurrituak— (contrastados) argi ta itzal aldunekoak— (aldun— potente) besteta'n neurridun— bakun— bañan nere ustez besteak baño gizaki— edertide— (artístico) obegoak.

Arkatza eskua'n zunian —egizko Maixu zan Joxé! Berezke— laga— zorogarri— gazte— Renoir bezela! Bai ta ere pixka bat umien— Sisley ta Pisarrón antzera! Margoa— kolorea ez ikusten— bañan ura zan ura dibujantea!

Ziur— sendo— egizko (real— realista) izan arren.

Gure eskola orain ez berdiña (diferente) da— ala ere zelatasunak ez du eskelik.— eta gutxiago dibujoa'n.

Sara'n (Ementxe egin zitun bere gauza onenak) bear bada an zalantza'n kezka'n bizi zalako— ezagutu nuen nik.

Denbora gorriak ziran aiek— naastuak— Gure Joxe'k larrik igaro zitun. Beste edozeinek bai buruba azkar galdu! Ez orrela Joxe'k!

Alperrik ez zun arkatza eskua'n ta mendia ondua'n!

Arkatza— mendiari puska bat kentzeko— goxoki goxoki miñik egin gabel!



Mendia— paketsu— alai— bakarrik bizitzeko— BERA izateko!  
 Pakea— mundurik igea— mendi urdiñ— goxo— leun aietan arkitu o intza  
 divina— bere kerizpe paregabea—! Bai taere gure Mendi— Margola— riak—!  
 Azkenea'n— Paketa— obe baretasuna bai berriz iritxi—  
 Pakea— Mendikoa da— Baretasuna— Mundukoa—.

Denentzat tokia ba dago mendia'n— Mundua'n-ikusten degunez— ez... Joxe  
 Eizagurre orduan Donibane'n bizi zan— etxetxo pollit— txuri apañ batea'n—  
 txoriak baño alaiago ta noski beti margozki ta atkatza eskuba'n!  
 «Zein ederki pintatzen dezun— Pop (Joxe) esaten nion nik—» arritu— lillura-  
 tuta— ta berak bai azkar erantzun— Parrez— parrez arto— bero usai sendo-  
 umieki'n: «Noski! Pintatzen jaio nintzan ta!» (¡Claro! ¡Nací pintando!)

Donibane'n noski— besteak dira bere Gaiak— Kai ta kale izkiñak itxaso—  
 itxaso benetan— dena urdiñ— ameslari— bare— gertaetara deitzen— bañan  
 ori bai— beti mendi puska bateki'n— Larrun— edo Jaizkibel— (Mendi Santua)  
 Bordagain— bere Dorre zar untza'n murgilduaki'n.

Itxas zoli (Sonoro) aldean ba dago tontor orlegi orlegi bat -  
 Tontor orrek Sta Barbara izena du.

An goitik bai ederki ikusten dala— urrunea'n urtua— Aiako Arkaitze'n erra-  
 ñu (silueta) orztun (dentada) morea.

Emen beia'n itxasca'n— ba dijoazte ontziak— txoriak— antxetak (gaviota) bezela— egan— urrutira olatuak lagun—

An goia'n— oso berta biotzarentzat— Aiako mendia —Aberriare'n irudi atsegin-goza! O Sorteriare'n erri— miñ biguñá!

Tontor zoragarri artan sortu da — sortu Joxe'n buruba'n— luuki bikaiñ bat— beretzat — nola ez— biotz biotzekoa— xamur— xamurra— «Sta Barbara gañea'n— zutik erraldale geltsu bat— ametsetan, urrunea'n— Ayako Arkaitzak...

Auxen izango da bere kuadririk eder-obeena— bere kuandro azken-eldua... Bañan kuadro ori ez du beñere egingo—

Ala bat batean gure Joxe— gaxotu — negua da— negu gorri— otza— Ziaurriz Tolosar sendagille agurgarriak dionez— ez du gauza onik.

1.948'garren urtea'n gaude.—

Eta olaxen egunbatia'n— beti itri— parrez— beti baikor (Optimista) mojarí oso ondo igaro dula gaua esanez—

Zerura joango zaigu gure Joxe— ! Bere erbestea bukatu da!

Bere burruka— artista burruka— edertasuna arkitzea izan da— orain bai arkitu dula!

Artista onek utzi digu liburutxo bat ere— «EKAITZPEAN»

Beia'n-ibarra'n-ekaitzpe— anai guda izugarria dago— goiko mendiko baserria'n— pakea— zoriona— Emen ere mendia— beti mendia!

Tolosa'n— lege gizon— (Abogado) Erbestea'n— artista ez al da «gauza zoragarria?» Artiak salbatu nau esango digu «askotan—»

Artiak lagundu nau ederki-obeto ezin— urte beltz oieta'n—

Ez al da aski Artia eta Artistak jaso ta goratzeko?

Eta, orain bukatzeko— Joxe oso euskaltzalsa zan— guretzat— gazteentzat sortutako gezna (Mensaje) bakun bañan mamitsua: Zein ederra dan gure Euskera! Ala ere— ez ba degu «ibiltzen» alegia— euskeraz itz egin — idatzi— irakurri— pentsatsen— ezertarako ez du balio.— Egur zar bat bezela— ona da suako.

Saiatu gaitezen ba denek— gure Euskera zarrari indar berria ematen— denbora berri— indar berri—

Gure mendi zarrak— Txindoki— Aitzgorri—Uzturre— Ernio— ala urtero elur janzkera (traje) txuri berriaki'n apaindu berritu—

Gure Euskera maiteari— ukatuko al diogu biar dun janzkera berria?

OARRA.—Atalxo ontan esan degun bezela— Joxe'n lauki eldu— onenak— Sara ta Donibane'n egindakoak dira.

Zorionez— ba ditu geiago— denak dibujoak— (bai bikaiñak—) asko— Palestina'n eguindakoak (Joxe Palestinara juntzan 1909'garren urtea'n) gotxienak— Tolosakoak.

Alegia— bere margozko laukitan— garbi ikusten da— Palestinako argi lertik (explosivo) artistare'n anima— oarmen— Begia— pixkat zauritu ditula! Ceiago bizi izan bazan nik munduba'n ezagutu deten gizon onene...

Artista ta gaiztoa? Ezin!